



Urretxu
2014 Uztaila
123.alea

K
B
I
X
O

2.orrian
Limpieza
4.orrian
Agenda 21
6.orrian
El paro en Urretxu
7.orrian
Fiestas populares
8.orrian
Ayudas ante la dispersión
9.orrian
Mercados alternativos
10.orrian
Buzones y participación
11.orrian
Euskera
12.orrian
Gardentasuna
14.orrian
Ayuntamiento y barrios
15.orrian
Hobekuntzak Kalerrotan



3.orrian

Urretxuko
Igerilekua,
gure
hondartza!





urretxu.info-citi.es/

Garbiketaz hitz egiteko erreminta berria

Urretxuko Udalak garbiketaren inguruko ekarpenak jasotzeko erreminta berria plazaratu du: urretxu.info-citi.es/ helbidean topa eta erabil daiteke. Webgune honek, garbiketa zerbitzuari zuzenean zikinak dauden edo garbitzea behar duten lekuen berri emateko aukera ematen die herritarrei. Garbiketa zerbitzuan ekarpena jasoko dute, eta behin garbituta, horren berri emango dute.

Erabiltzaileek, gabezia horren berri emateaz gain, garbitu beharreko gunea mapa batean kokatzeko aukera izango dute, eta baita euren eskaera argazki edo bideo batez laguntzekoa ere. Modu honetan, garbitzaileen lanaren eraginkortasuna hobetu nahi da. Garbiketa zerbitzua kudeatzen duen enpresa aldatzearekin batera egin dute berrikuntza, eta herritarren sentsibiziaziorako plataforma bat ere izan nahi du atariak. Horretarako hainbat lehiaketa eta promozio burutuko dituzte webgune honetatik, eta erabiltzaileek markatutako gertaerez gain, garbitasunari lotutako albisteak, ideiak eta ohar interesgarriak ere kaleratuko dituzte.

Urretxubizim webgunean aurkituko duzu esteka zuzena.

KAIIXO
UDAL ALDIZKARIA
123.alea

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Gattiken

Erredakzioa: Jon Ormazabal eta Gattiken

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Más información/informazio gehiago:
www.urretxubizim.com/kaixo

Urretxun uda, kirolaz blai

Luzeenak izanda, udako oporraldia izaten da eguneroko errutina albo batean utzi eta urte guztian zehar egiteke geratzen zaizkigun gauza horiei heltzeko garairik onenetakoa. Eguzkiaz lagunduta, uda izaten da kirolerako eta aisialdirako unerik onena eta, urtero bezala, Urretxuk hamaika aukera eskaintzen ditu herritarren gozamenerako.

Beti bezala, dagoeneko atea zabalik dituen Pa-goetako igerilekua izango da, aurtin ere, olgetarako gunerik nagusiena. Irailaren 14ra arte egongo da zabalik kirol instalakuntza hau eta, eguraldiak laguntzen badu, bertan emango dituzte orduak eta orduak herritar askok. Hala gertatu zen iazko uztailan, 17.615 sarrerekin, inoizko daturik onenak eman zirenean.

Baina kirol eskaintza ez da igerilekura mugatzen, Aldiri kiroldegiak ere beste hamaika aukera ere ematen ditu uztailan zehar antolatutako ikastaroekin. Ume eta gazteei zuzenduta, multikirola (talde kirolak, mountain bike, fresbee, voley, floorball, irristaketa, esku pilota, mountain bike, kick boxing, integralgazte (fit combat, fit tone, fit balance, fit bike, fit cross) eta zunba tailerrak antolatu dira.

Helduek aukeratzeko ahalmen handiagoa izango dute yoga, spinning, pilates, fit cross, mountain bike, ziklo-power, integral fit, trx, kick boxing, power-gap, irristaketa eta zunban aritzeko aukera izango baitute. Informazio gehiagorako, deitu Aldiri Kiroldegira, **943038092**.

Agenda

21

diagnostikoa

Hurrengo urteetarako oinarriak jartzen

{ Ingurumen arloko azken Tokiko Ekintza Planaren indarraldia igarota, Agenda 21ko Foroan berrikuspen prozesua martxan jarri da, eta lehen pausua iraunkortasunaren hiru dimentsioak (gizartea, ekonomia eta ingurumena) baitaratzen dituen diagnostikoa egitea da.

Udal kudeaketa eta udalerriko bizitzan eragina duten arlo tematikoen identifikazio, datu bilketa eta analisiak behar-beharrezkoak dira, egoeraren argazki gaurkotua bilatu nahi delako. Diagnostikoaren baloraziotik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko eskuhartze arloak zein diren erabakiko dira, eta hau izango da datozen urteetako ekintza sorta formulatzeko oinarria.

Diagnostikoa arlo tematikoen arabera egin da: lurraldea eta plangintza, mugikortasuna eta garraioa, biodibertsitatea eta paisaia, ura, hondakinak, energia, ingurumen kalitatea, arriskuaren eta jardura ekonomikoaren kudeaketa, klima aldaketa, udal administrazioaren erosketa publikoa eta ingurumen kudeaketa, komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren partehartzea, barne koordinazioa eta

transbertsalitatea, biztanleria, ongizatea eta gizarteratzea, garapen ekonomikoa eta lan merkatua, hezkuntza, eskola, kultura, kirola, etxebizitza...

Udal mailan Agenda 21eko arlo tematikoein zerikusia duten sail guztiek hartu dute parte lanketan, eta eskualde mailan Uggasa, Sasieta Mankomunitatea eta Goimenek ere beraien ardurakoak diren gaien inguruko informazioa helarazi dute.

Hiritarren ikuspuntua barneratzeko bi foro antolatu dira. Foroek ez dute izan nahi bezalako asistentzia maila, baina bertaratutakoek ekarpenak oso aberasgarriak izan dira diagnostikoa alde subjektibotik osatzeko. Era berean, Urretxubiz web orrian herritarren pertzepzioa jasotzeko galde-tegi bat eskegi da. Kasu honetan ere, erantzun gutxi batzuek soilik jaso dira, baina hauek ere diagnostikoa osatzeko behar beharrezkoak izan dira.

Udalak foro edota galdetegiaren bidez parte hartu duten eragile, elkarte eta herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Izan ere, ez da erraza izaten Agenda 21 bezalako prozesuetara jendea erakartzea, gai zabala delako eta gehiengoak ez duelako oraindik barneratuta udalerraren garapen estrategian parte hartzeko aukera ematen duen prozesu bat dela.

Udalak gogoz gonbidatzen ditu, beraz, herriko talde eta herritarrak datorren fasean, Ekintza Planari dagokionean, parte hartzera, Agenda 21en berrikuspenean guztientzako zabalik dagoen hausnarketa prozesua baita.

Uda ostean, diagnostikoa oinarri hartuta, etorkizuneko estrategiak eta proiektuak zeintzuk izango diren zehaztuko da, eta hauek Ekintza Plan batean jasoko dira.

PROTOCOLO DE ACTUACIÓN FRENTE A LOS VERTIDOS

Aunque en los últimos años ha mejorado considerablemente la calidad del agua del río Urola, todavía son frecuentes los vertidos al río.

La calidad del agua de los ríos de Gipuzkoa se controla a través de una Red de Estaciones permanentes y una Red de puntos de muestreo que disponen la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco (URA). Aparte de esta red de vigilancia, hay un protocolo de actuación frente a vertidos, que se activa cuando cualquier ciudadano/ciudadana llama a SOS Deiak (112) al observar un vertido. En este caso, desde el Ayuntamiento de Urretxu queremos resaltar que es muy importante llamar cuanto antes al 112, ya que de lo contrario existe riesgo de que se diluya el vertido y no se pueda localizar su origen. Por tanto, queremos recordar a la ciudadanía los pasos que deberían seguir al observar un vertido:

- 1- Llamar al 112 e indicar las características del vertido y su localización
- 2- Avisar a los agentes municipales en el número 943038085 y explicar lo observado
- 3- En la medida de lo posible se esperará in situ hasta que llegue el agente municipal

Por parte del Ayuntamiento, se activará el protocolo de actuación propio para realizar una labor de investigación y recopilación de datos de procedencia de vertido (fotografías, toma de muestra, etc.) y facilitar dicha información al Servicio de Vigilancia de URA y de la Diputación.

«LANGABEZIA DATUAK»



EKAINA 2014

Ekaineko datuen arabera, azken bi hilabeteetan 98 langabetu gutxiago daude Urola Garaian. Eskualdeko langabezia tasa %12,4an kokatzen da, eta Urretxukoa %11,6an. 2013ko ekainetik hona %7,81ean jaitsi da langabezia indizea. Urola Garaian 1.569 langabetu daude gaur egun, eta horrela, aurreko hilabeteetan somatu den datuen hobekuntza ekainean ere mantendu da gure bailaran.

Urretxuk, 391 langabetu ditu ekainean, hauetatik 172 gizoneko eta 219 emakumezko dira. Sektoreka banatuta, nekazaritzan bi langabetu ditugu; industrian 90, eraikuntzan 28,

zerbitzuetan 226 eta lehenago lanik izan gabekoak 45. Gipuzkoarekiko diferentzial positiboa 0,9 puntutan kokatzen da.

Ezkio-Itsaso: 10,3% _ 32 perts. (+2)

Legazpi: 10,6% _ 437 perts. (-3)

Urretxu: 11,6% _ 391 perts. (-17)

Zumarraga: 14,8% _ 709 perts (-19)

Gipuzkoa: 13,3%

EAE: 15,5%

* 2014ko Festak Guztion artean, guztiontzako

Urretxuko festak herritarren parte hartzearen isla eta eredu dira. Udalak, legegintzaldi hasieratik jarraitu duen bidean, eta jaiak duten parte hartzearen eredu horretatik ikasi nahian, festen antolakuntzako erabakiak herritarren esku utzi nahi izan ditu, iaz hasitako bidetik.

Aurten ere, jai batzordeak hartu du antolakuntzaren ardatsa, eta iaz egin bezala, aurten ere gazte eta heldu asko batu dira zeregin horretara. Uztailaren 8an, 15ean eta 22an planteatu dituzte Jai Batzordearen bilerak, eta erabakiak hartzen hasiak dira jada. Jai Batzordea da Urretxuko festen bihotza, eta taupadaka, indar biziz ageri da herriaren mesedetan.

Honi lotuta, Jai Batzordearen zeregina lagundu asmoz, eta herritarren nahiak hobeto ezagutzeko, Udalak Urretxubiziz.com tresna erabili du beste behin ere, herritarrei zuzenean galdetu, eta ahalik eta erabaki onenak hartzeko asmoz. Erantzunak asko izan dira, eta Udalak eskerrak eman nahi dizkie bai jai batzordean eta baita urretxubiziz.com webgunean ere parte hartu duten herritar guztiei.

Urretxuarrak berriro ere herrigintzan eredu zarete. Eskerrikasko guztioi!

* Presoen senideei laguntzen jarraituko du udal Gobernuak

Asko dira, 2012ko udazkenetik, Gobernu Ordezkaritzak herri borondatearen aurka ezarritako agindu eta prozesu kontentziosoak. Euskal Herriko beste zenbait herritan gertatu bezala, Urretxuko Udala ez da salbuespena izan eta jaso ditu zenbait eskaera eta mehatxu, Espainiako bandera jartzera behartzetik hasi eta preso politikoen herriratzea eskatzen duen ikurra kentzeraino.

Zalantzan jarri den beste kasu bat, Euskal Herri-tik urrun kartzelararuta dauden presoen senideei, bidaien gastuei aurre egiten laguntzeko, udalak eskaintzen dituen diru-laguntzak izan dira. Puntu honetan, Udal Gobernuak oso argi dauka, gaia ordonantz bidez garatuta dagoela Urretxun, adostasun osoz gainera eta, gainontzeko kasu guztietan bezalaxe, etxetik kilometro askotara sakabanatuak izan diren euskal preso politikoen senideek ere laguntza horiek behar eta merezi dituztela, gizarte-bazterketa arriskuan egon daitezkeen gainontzeko herritarrek bezala.

Dena den, herritar hauekiko elkartzasunez, eta espainiar Estatuaren legedia betetzeko eskatzen duen

aldarri gisa, udaletxeko balkoian jarritako «Euskal presoak Euskal Herrira» zapia jartzeagatik udalaren kontrako sententzia jaso berri da. Gobernuaren ordezkariak aurkeztu zuen demandaren arabera, presoen eskubideen aldeko banderola jartzeak Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua eta toki erregimeneko legedia urratzen ditu, herri administrazioek bete beharko luketen neutraltasuna eta objetibitate printzipioak hausten dituelako. Gainera, halako zapiek terrorismoaren biktimen duintasun eskubidea urratzen dutela eranstzen zen. Oñatiko udalaren kasuan gertatu ez bezala, Donostiako Administrazio-arekiko auzien epaitegiak emandako sententziak ikur hau bere fatxadatik kentzera behartzen du Urretxuko Udala abuztuaren 22a baino lehen.

Espainiako banderaren inposaketa ere auzitegietan dagoen kasu bat da. Gobernu ordezkariaren eskaerara betez, udal Gobernuak, Urretxun bizi diren herritarren jatorriko herrien banderekin batera, udaletxeko balkoian jarri zuen Espainiako bandera, baina neurria egoki ikusi ez eta Carlos Urquijok gidatutako erakundeak berriz ere jo zuen epaitegietara.

Salmenta eredu eta espazio berriak

Urretxuko Parte Hartze prozesuko Mahai Soziala eta Ingurumen mahaia elkananean ari dira udazkenetik aurrera martxan jarriko den azoka eredu berri baten inguruan, herritarrei erabilitako objektuak/produktuak berrerabiltzeko aukera praktikoa eskaintzeko asmoz.

Horrez gain, lan egiteko modu berriak, ekonomia eta kontsumo eredu ezberdinak ezagutarazi eta gizarteratzea izango du helburu, eta horrela, azoka mota horien kultura sustatu, gizartea sentibilizatu eta kontzientziatzea, eta, oro har, parte hartzea bultzatzea ere bilatuko du.

Prozesuaren momentu honetan azokaren beraren definizioan ari dira lanean eragile ezberdinak. Objektuen sal-erosketa hutsa izango den, norberak egiten dituen artisaun-lanen erakusketa eta salmenta puntuak ("Do it yourself" filosofiarekin bat eginez)...

Horrekin batera, nolabaiteko dekalgoa taxutzen ari da mahaia. Alde batetik nork parte hartu dezakeen behar bezala definitzea guztiz garrantzizkoa da: norbanako zein elkarteak, herritarrek lehentasuna izan beharko luketen... Bestetik, azokak izango dituen postuak jartzeko irizpideetan adostasuna bilatu nahi da, zein objektu eta produktu jartzeko aukera izango diren, hala nola: arropak, liburuak, musika eta zinema materiala (diskoak, CDak, DVDak, etab.), kirol-gaiak, dekorazio-gaiak, erremintak eta neurri txikiko etxeko tresneria...

Halaber, funtzionamendua bera ere definitzea ezinbestekoa izango da, norberak bere postua kudeatzeko gaitasuna eman edota inguruko beste hainbat azokatan ematen den gordailu sistema ezartzea, alegia, interesa duen edonork bere traste, objektu edo dena delakoa gune batean utzi eta talde batek hori guztia kudeatzea.

Horrekin guztiarekin, urteko sasoi jakinetan merkatu bereziak egitea proposatu du mahaia, Inauterietan eta gabonetan, kasu, eta molde aldetik, truke-merkatuak ere egiteko apustua erakutsi du.

Aipatutako guztia behar bezala bere kontestuan kokatzeko, ikasturte osoko jardun edo egutegia egitea ere garrantzizkotzat jotzen da, ekintza soil bat bihur ez dadin. Horretarako, sentibilizazio eta trebakuntza saioak ere interesgarriak ditugu, egitasmoa pixkanaka gorpuzten joan dadin. Tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak... formatu eta espazio ezberdinetan prestatzen hasia da mahaia, hartzaille ezberdineri zuzendutakoak izatea ere merezi duela iritzen baita.

Aipatutako guztia aurrera eraman ahal izateko antolamendua behar du ezinbesetan, eta horretarako, udalak erretzaille papera izango du, baliabideak jarriz. Baina ezinbestean talde eragile batek izango du lan hauen kudeaketaren ardura, azoka beraren inguruko erabakiak hartu, sentibilizazioan bultzatu, beste eragileekin sinergiak bilatu eta gizarteratzea ahalbideratuko duena.

Mahaia bera talde irekia da, eta bertan edonork parte hartu ahal dezake. Interesa duenak Urretxuko udaletxean eska dezake informazioa edo **943 03 80 83** telefonora dei dezake. **Urretxubiziz.com** web orrian informazio osoa kontsultu daiteke.

Buzoietakoko ekarpenak



MEZUA

Kaixo:

Gazteluko parkeko trenean tornillo batzuk agerian daude eta oso arriskutsuak dira umeentzako.

ERANTZUNA

Kaixo:

Lehenik eta behin, milesker zure ekarpenagatik. Ahal bezain pronto, mantenimenduko arduradunari pasako diogu zure eskaera eta soluzioa bilatuko diogu.

MEZUA

Kaixo:

Pagoetako parkean argi gutxi dago. Lau farolak argi gutxi egiten dute. Orain eguraldi ona hasi denean gazte asko ibiltzen da futbolean eta oso ilun dago. Frontoi zati batean badago argia.

Eskerrik asko.

ERANTZUNA

Kaixo:

Lehenik eta behin, eskerrik asko zure ekarpenagatik. Aipatzen duzun zonaldean, arazoak ditugu argite-riako koadroekin eta mantenuko arduraduna lanean ari da. Horrez gain, hor dauden argiak Led teknologiarara igarotzeko aukera aztertzen ari gara, argi gehiago eman, eta, aldi berean, aurrezteko bide eraginkorrak dira.

[Aurrerantzean buzoietan jasotako mezuen aukeraketa bat argitaratuko da!] <http://urretxubiziz.com>

Buzones para la participación en Urretxu

En total se han recibido 113 aportaciones desde que se puso en marcha el servicio de buzones; tanto en los buzones físicos como en los virtuales. Las aportaciones son de diferente índole, y se pueden clasificar de la siguiente manera:

Por temas:

- Relacionados con la limpieza: 30
- Obras urbanísticas: 26
- Ambiente en la calle: 6
- Jardinería: 2
- Ciudadano (relacionados con la ordenanza de los perros) : 3
- Ruidos: 9
- Otros: 25

Por barrios:

- Aparizio: 6
- Areizaga: 25
- Basagasti: 1
- Ipeñarrieta: 28
- Madaya: 24
- Urretxubiziz.com: 37

urretxu biziz

Transmisioa eta Kirola Euskara bere lekua berreskuratzen



Euskalgintza foroak Transmisioa eta Kirola aukeratu ditu eragiteko arlo nagusi gisa. Bi herrietako euskalgintza arloko eragileek parte hartu duten gogoeta baten ondoren egin du hori, eta jada hasiak dira ekintza konkretuak zehazten.

Parte Hartze prozesuaren barruan sortutako foroak hainbat bilera egin zituen iaz, eta bilera horien ondorioa da bi arlo hauetan eragitea.

Transmisioari lotuta, gurasoen parte hartzea bilatu behar dela ikusi dute, eta hauekin ere hainbat bilera egin dituzte ikastetxeetan. Kontzientziaren ideia behin eta berriro ateratzen da bilera horietan: zer dela eta jotzen duten guraso euskaldunek gaztelaniara, eta gogoeta horri helduta, hainbat ekintza proposatu dituzte. Batetik, Parketarrak egitasmoa abiarazi dute, eta bestetik, ikus-entzunezko lan bat prestatzen ari dira. Bi ekintza hauek gurasoengan, kontzientzian eta orokorrean herritarrok ditugun jarreretan eragin nahi dute.

Paketarrak egitasmoa ekainean gauzatu zen, Urretxuko eta Zumarragako parke banatan. Gurasoak eta umeak gune batean elkartzeko asmoa, eta gune horretan hainbat aktibitate planteatzea. Bi saio egin dituzte eta antolatzaileak gustura daude parte hartzearekin. Ikus-entzunezko lanari dagokionez, gure gizartearen egon daitezkeen hizkuntza

kasuistika desberdinak erakustea da asmoa. Honez gain, Institutoko eta Garaialde Lizeoko ikasleekin ere bildu dira parte hartze prozesuko kideak, ikasleen kontzientzia piztu, elkarlan bat abiarazi eta datorren ikasturterako ekitaldi bat prestatzeko helburuarekin.

Kirol arloan, euskararen erabilera handitzea da helburua, gazte askoren parte hartzea duen arloa baita. Talde eragile bat sortzen ari dira orain, herrian kirola egiten duten eta euskararekiko sentsibilizazioa duten pertsonekin. Talde Eragile edo plataforma hau izango litzateke aurrera begirako pausuak zehaztuko litzukeena.

Honekin batera, Urretxuko Udala Euskara Sustatzeko Plana zehazteko lanetan dabil, gizarteko esparru guztietan euskararen normalizazioa lortzeko helburuz. 16 esparrutan banatuta, hainbat ekintza planteatzen ditu Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren proposamenak, eta Urretxuri dagokionean, euskara zerbitzutik antolatzen diren ekintzei euskalgintza forotik antolatzen direnak batuko zaizkie.

Compromisos y medidas para el proceder de alcaldes y concejales



Transparencia, rigor, control estricto, interés público, ausencia de partidismos y privilegios, gestión sin despilfarros... son términos sobre los que existe un amplio consenso a la hora de definir nuevos sistemas y procedimientos de la administración pública.

Y es que, al margen de las irregularidades y delitos, en un sistema capitalista que suscita este tipo de prácticas, son estos casos de corrupción los que han abierto un enorme socavón entre la ciudadanía y sus representantes políticos, una gran brecha en la confianza de la gente de a pie con sus instituciones.

Teniendo muy clara la necesidad de un cambio radical en la vida pública y pasar a un modelo en el que la ciudadanía pase a ser el eje y el protagonista de la actividad diaria, el Gobierno municipal de Urretxu tiene previsto regular el proceder de su alcalde y concejales, mediante una ordenanza que recoja una serie de compromisos y medidas. Todas estas medidas ya

se cumplen actualmente, pero conviene darles una garantía legal y ética

1.-Principio general:

Teniendo el respeto como base principal, se ejercerá con total respeto y consideración a todas las personas e instituciones, sin ningún tipo de prejuicios ni discriminaciones.

2.-Medidas de contratación

Más allá de cumplir las leyes de contratación administrativa, se implantarán protocolos propios. Por ejemplo, solicitando tres ofertas también en obras pequeñas.

-En estas contrataciones, se tendrán muy en cuenta principios sociales, medioambientales, éticos y de igualdad

-En todas las mesas de contratación se asegurará la presencia de todos los grupos municipales.

3.-Medidas de gestión

-Todos los grupos con representación municipal, sin excepciones, tendrán opción de participar en las comisiones de gobierno.

-Todos los concejales tendrán acceso, semanalmente, a toda la información sobre las entradas y salidas de los registros del Ayuntamiento.

-Los cargos públicos de este Ayuntamiento no participarán en aquellos asuntos en los que pudieran tener algún interés económico o cualquier otro tipo de ventaja. Tampoco si ese beneficio alcanzase a algún

familiar de hasta segundo grado, siempre que esos asuntos tuvieran algo que ver con su proceder público.

-Lo mismo sucederá con los asuntos de empresas o sociedades en las que hubieran tenido participación en los últimos cinco años.

-Los concejales tendrán acceso a todos los expedientes, pero nunca podrán sacarlos del ayuntamiento. Eso sí, el uso de esta información se limitará a la actividad municipal.

-No se podrá utilizar la información privilegiada conseguida en el cargo para ninguna operación.

-No se realizará ningún uso particular de los recursos municipales, haciendo un empleo estricto de los mismos.

-Los cargos públicos no podrán aceptar regalos ni donaciones que puedan condicionar su neutralidad.

-De todos modos, en caso de recibir algún obsequio, se dejará en manos del Ayuntamiento y se facilitarán a aquellas entidades con necesidades, priorizando su uso público.

4.-Gastos del alcalde y los concejales

-El alcalde tendrá una partida propia para gastos de representación y protocolo, siempre que en el Ayuntamiento se contemplen gastos de protocolo.

-Esos gastos serán solo aquellos que tengan una relación directa con el ayuntamiento, en ningún caso con intereses particulares o partidistas. Todos los gastos que puedan considerarse de lujo serán inadmisibles.

-Los concejales podrán cobrar gastos surgidos en el desempeño de su cargo. Para ello deberán presentar siempre los correspondientes justificantes. Estos gastos pasarán mensualmente por la Comisión de Hacienda y se harán públicos.

-En caso de habilitarse una partida para protocolo, el alcalde y los concejales darán cuenta de estos gastos en el pleno municipal y esta exposición pasará a ser un punto fijo de cada orden del día.

5.- Seguimiento

-Se creará una comisión de Seguimiento del Código Ético que medirá el cumplimiento de estas medidas, que se reunirá con una periodicidad mínima de tres meses.

-Una vez concluidas sus responsabilidades, los electos darán las explicaciones pertinentes sobre su gestión, en caso de ser requeridos por el Ayuntamiento.

-Se creará una comisión para evaluar la conducta de las personas electas que no cumplan con lo recogido en el Documento de medidas y compromisos para alcaldes y concejales y propondrá las medidas a seguir.

6.- Última

Los cargos públicos de este Ayuntamiento aceptarán el Documento de medidas y compromisos para alcaldes y concejales explícitamente, firmando el documento y dándole la difusión necesaria.

Udala auzoetara hurbiltzen



Legegintzaldia hasi zenetik, herritarren parte-hartzea bermatu eta bideratzea izan da udal Gobernuaren erronka nagusienetako bat. Sarri ahaztuak izan diren auzoak udaletxera hurbildu eta euren problematikak lehen eskutik entzutea lehentasun bat izan da azken hilabeteetan eta egindako bilera eta jarraipenak eman dituzte dagoeneko euren lehengo fruituak.

Auzotarrak direnez egunerokotasunean sortzen diren traba eta arazoak pairatzen dituztenak, dinamika hauen bidez, udalarekin komunikazio bide zuzen bat izatea bilatu da, nahiz eta oso argi izan traba hauen guztien konponbidea ez dagoela beti udal agintarien esku.

Dena dela, gabeziak gabezi, Aparizio, San Martin, Santa Barbara, Mundo Mejor edota Pagoetan egin diren bilerak oso giro eraikitzailean egin dira eta denetan oso antzeko prozedura eraman da; aurretik egindako proposamenen jarraipena eta balorazioa egin eta hurrengo urterako beharrezkoak ikusten diren hobekuntzen proposamenak adostu. 2014ra begira, atzeman diren behar gehienek garbitasunarekin eta lorezaintzarekin zerikusia izan dute eta ikusi egin beharko da, lehen Zumarragarekin batera egiten zen kale-garbiketa esleipenaren aldaketak, orain herri bakoitzak berea kudeatuko du, zer nolako emaitzak ematen dituen. Pagoeta auzoko bileran argi geratu zenez,

garbitasunarena da herritarrei kezkarik gehien sortzen dien arazoetako bat. Horrez gain, Alde Zaharra biziberritzeko martxan jarritako prozesua aintzat hartuta, Pagoeta auzoko merkataritza eta ostalaritza indartzeko plan zirriborroa lantzeko konpromisoa hartu da UGGASA, Bi-Tartean eta Udalaren artean koordinaturik. Uztailen aurkeztuko dira lehen lan-lerroak.

Bestelako gaietan, Aparizio esaterako, auzotarren biltzerga izango den lokal edo areto bat bideratu ahal izateko negoziaketetan ari dira, bertako bizilagunek oso beharrezkotzat jotzen dutena, inguruan ez dute eta horrelakorik.

Santa Barbara auzoan, bere aldetik, egurrezko eserleku berri batzuk jarri dira, aurrekoak ez zirelako batera erosoak bertan esertzen ziren herritarren aburuz. Uda parte jarritako eserleku berri hauen egokitasuna aztertzeke erabiliko da, eguraldi onarekin izaten baitute halako altzariek erabilerarik handiena.

Bilera hauetara joateko modurik izan ez zuten herritarren informaziorako, <http://urretxubiziz.com/category/gaiak/> auzoak/ web helbidean, batzar hauetako akta guztiak eskuragarri jarri ditu udalak, iazko proposamenen jarraipen taula eta hurrengo urterako zehaztu diren hobekuntzekin.

* Mejoras en el pavimento de Kalerrota

Mucha del agua que baja desde Irimo y el entorno termina acumulándose en la zona de la zona deportiva del Liceo, motivo por el que el pavimento de la propia cancha como la carretera y el bidegorri anexo han sufrido considerables daños, al hundirse el suelo y crearse varios socavones y grietas en el pavimento de la zona.

Llegado el momento de poner remedio a estas deficiencias, el año pasado se readecuó la cancha polideportiva del Liceo y recientemente acometió el acondicionamiento de la carretera contigua. En un principio, la idea era de acometer el asfaltado del bidegorri al mismo tiempo, pero las dificultades técnicas encontradas a la hora analizar el terreno fueron mucho mayores de lo esperado, lo que recomendó aparcar las mejoras del bidegorri para más adelante.

Con el propósito de minimizar las molestias que estas obras podrían generar, sobre todo en propietarios de garajes y usuarios del supermercado BM, estas obras se realizaron de noche.

Sin embargo, problemas con la meteorología impidieron que los trabajos se pudieran finalizar del todo y solo se pudo llevar a cabo la reparación del firme y posterior asfaltado, a finales de mayo, y la siguiente, fase, el pintado de la carretera, se llevará a cabo en próximas fechas. Al contrario que en la primera fase de las obras, cuando, para facilitar el tránsito de vehículos, la carretera se fue cerrando por fases, esta vez el ramal se cerrará por completo mientras se proceda al pintado de la zona, para lo que los técnicos calculan que se necesitarán en torno a dos o tres horas.

Al margen de reparar los desperfectos creados con el hundimiento del firme, al acometer estas obras se han suprimido las diferentes alturas que existían en la calle Kalerrota, dejando toda la zona al mismo nivel, con lo que además de facilitar la accesibilidad de toda la ciudadanía, se ha recuperado una zona que podrá dedicarse al ocio y al disfrute general, lo mismo en fiestas y como en ocasiones especiales que así lo requirieran.

ABUZTUKO ORDUTEGIAK



Kultur Etxea eta bertako zerbitzuak (Museoa barne)

Irekita publikoari **09:00 – 14:00**

Abuztuaren 8tik 24ra itxita

Aldiri kirolegia

Itxita abuztuaren 3an, 9tik 24ra eta 3 In

Abuztuak 1,4,5,6,7 eta 8:

9:00-13:00/17:00-21:00

Abuztuak 2: **9:00-13:00**

Abuztuak 25tik 29ra: **8:00-22:00**

Abuztuak 30; **9:00-14:00/16:00-20:00**

Pagoeta Igerilekua

Abuztu osoa irekita

Ordutegia: **11:00-20:00**

Ederrena Pilotalekua

Abuztu osoa irekita

10:00-15:00/17:00-22:00

Udaltzaingoa:

Abuztu osoan zerbitzua.

asteazken zehar: **07:00-21:00**

asteburuetan: **09:00-21:00**

Harrera bulegoa:

asteleheneretik ostiralera.

Ordutegia **07:30-15:00**

Gizarte zerbitzua:

itxita abuztuaren 11tik 17ra.

Ordutegia: **08:00-14:00**

Hirigintza:

itxita abuztuaren 11tik 24ra.

Ordutegia: **09:00-14:00**

Idazkaritza:

itxita abuztuaren 8tik 24ra.

Ordutegia: **09:00-14:00**

Ogasuna:

itxita abuztuaren 11tik 24ra.

Ordutegia: **09:00-15:00**

Abuztu osoan Alkatetza herritarren eskura egongo da.

Harreran txanda eskatu.